



Iban Zaldua idazlea. Juanan RUIZ | ARGAZKI PRES

infraganti IBAN ZALDUA

Gaztetatik datorkio idazteko grina, irakurtzeko grinaren ondorio. Ipuin ugari eta eleberriren bat idatzi ditu, baita zenbait saio ere, idazleek beste idazleen lanak kritikatzeari XIX. mendean bezain zilegi iruditzen zaio-eta. «(Euskal) literaturaren alde (eta kontra)», azken urteetan idatzitako literatur hausnarketen bilduma, argitaratu berri du.

Lanpetuta dabil egunotan. Lanpetuta ibiltzen da egunero, baina egunotan bereziki. “(Euskal) literaturaren alde (eta kontra)” bere azken saioa aurkeztu berri du eta Durango-ko Azoka ate joka daor; hala ere,

tarte bat eskaini dio GAUR8ri bere ibilbide literario eta bitalaz mintzatzeko.

Iban Zaldua donostiarra da, edo gasteiztarra, «auskalo». Irakaslea ere bada, edo idazlea, «auskalo». Zientzia-fikziorako joera komiki irakurketatik ote datorkion galdetu diogu, 2012an

Euskadi Literatura Saria jaso zuen “Azken garaipena” lana go-goan, haren gidoia idatzi baitzuen Ibanek. Baietz dio, eta oro har gaztetako irakurketetatik. Zientzia fikzioari heldu zion oraindik orain GuraSOS Zubietako (Donostia) errauste plantaren aurkako plataformak eskatuta “Zaborra desagerrarazteko makina” ipuina idazteko ere. Zientzia fikzioa da, halaber, “Si Sabino viviría” bere lehen eleberrria. Nerabezaroan hasi zen bel-durrezko eta zientzia-fikziozko literatura irakurtzen eta baita idazten ere, besteak beste Isaac Asimov edo Stanislav Lem bezalako autoreenen antzeko narrazioak idazteko asmoz. Zientzia fikzioa bazterreko generotzat jotzen dela uste du, nolabait gutxietsia dagoela, baina egungo arazo eta kontraesanez hitz egiteko eta hausnartzeko baliabideak ematen dituela uste du, are gehiago zientzia eta teknologia abiada bizian doazen garaiotan. Edonola ere, lan horiek laster eleberri historiko bihurtzeko arriskua dutela dio, George Orwellen “1984” adibide jarritz: «Orwellek bere garaiaz idatzi zuen, II. Mundu Gerraz eta».

1984an, hain zuzen, hasi zen Gasteizen Historia ikasketak egiten. Karrera bukatu eta Bilbon urtebete eman ondoren, Gasteizera itzuli zen. 91n Ekonomiaren Historia irakasten hasi zen EHUn. Jakin dugunez eskolak emateko saio bereziak egin izan ditu, eta horretaz galdetu diogu. Berak, horretan ez dela batere heterodoxoa argi utzi eta beharbada pixka bat «teatre-roa» ere badela onartuta, rol joakoak, musika, filmak eta beste-lako baliabideak erabili izan dituela dio, gaietara hurbiltzeko, batez ere «lehorrak» direnean, astunegiak ez gertatzeko ahaleginean. «Lortzen dudana edo ez, beste kontu bat da».

EHUn irakasle hasi baino lehen liburu bat argitaratu zuen, gaztelaniaz: “Veinte cuentos cortitos”. Hurrengo, “Ipuin euskaldunak” (Gerardo Markuletarekin batera), hamar urteren buruan argitaratu bazuen ere, bitartean ez zion idazteari utzi. Gaztetan zenbait lehiaketatan

aurkeztu zituen bere lanak, eta aldizkarietan argitaratzen saiatzen zen. Badirudi entrenamendu hartatik ez zuela atarramendutu txarrik atera, bere narrazio eta saioen zerrenda luzeari eta jasotako sariei errepasoa egin da. Gaztetatik idazten du, beraz, gaztetatik irakurtzen duelako, eta irakurle izaera garrantzitsuagoa iruditzen zaio: «idazle izaera irakurle izaeraren ondorio da».

Gasteizko Irakurle Klubeko koordinatzailea da Iban. Hilean behin berak proposatutako libururen bat irakurri eta horretaz hitz egiten dute, batzuetan egilearekin edo itzultzailearekin batera. Baina horretaz gainera, ez da ezohikoa bestelako hainbat ekimenetan buru belarri sartuta ikustea: “Euskaldunon Egunkaria”-ren aldeko ikuskizunak antolatzen; Ramon Bajo ikastetxeko auzian, D ereduko lerro bat zabaltzea lortu zutenekoa; azkenaldion Gora Gasteiz PPrekan kanpaina xenofoboaren aurkako herri ekimenean, edo, esan bezala, GuraSOSek antolatutako jaialdian. Hala ere, garrantzia kendu nahi dio herri ekimenetan egiten duen lanari. Ez omen da bera bultzatzaile bakarra, askoz jende gehiagok parte hartzen baitu, eta batzuek lan gehiago eginda, gainera. Gaztetatik ibili omen da ikasle mugimenduan, ondoren erakunde politiko batean... «baina beti oinarrizko militante gisa».

Literaturan, ordea, konpromisoak ez omen du zertan emaitzan eragin, ez halabeharrez. Batzuetan antipoda ideologikoetan dagoen idazle batek erakartzen bagaitu, obra ondo idatzita dagoelako, hala aitortu beharra dagoela dio.

Euskaraz eta gaztelaniaz idazten du. Hasieran gaztelaniaz baino ez, ohituta zegoelako, eta, institutuan zenbait ikasgai euskaraz egin bazituen ere, ez zuen uste euskaraz idazteko mailarik zuenik. Ez zuen uste inoiz gaztelaniaz idazteko zuen gaitasuna euskaraz ere izango zuenik. Horren arrazoi nagusia, dioenez, euskal literatura gutxi kontsumitzea zen, «behartuta irakurri beharrekoa baino ez». Batetik,



Iban Zaldia donostiarra da, edo gasteiztarra, «auskalo». Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

halako presioa sentitzen zuela dio, «euskalduna izanik», baina, bestetik, garrantzitsuena ondo idaztea zela, eta bere «elikadura literarioa» nagusiki gaztelaniazkoa zela. Ondoren, ordea, saltoa egin zuen, «euskara nireagoa bihurtu zenean»; hau da, bere eguneroko bizitzan, lanean, irakurketetan euskarak protagonismo handiagoa hartu zuenean. Eta beretzat aurkikuntza izan omen zen. Halaber, euskal gaiez, esaterako euskal gatazkaz, gaztelaniaz idatzi zituen zenbait narrazio ez zituen gustuko: «edo gaizki idatzi nituen edo ez nien egiazko soinurik antze-man». Ordu arte literatura fantastikoa, errealtatearekin konektatu gabeko ipuinak idazten zituen, eta, gai horietaz idazteko premia nabaritu zuenean, euskaraz batzuetan sinesgarritasun handiagoa lor zezakeela iruditu zitzaion.

Gaur egun idazteko orduan nagusitu zaion bulkada euskaraz

egitea da, publiko erdaldunari propio zuzendutako lanen bat ez bada; esate baterako, “Ese idioma raro y poderoso” saioa. Asko irakurtzen du euskaraz, eta, behin eta berriz dioenez, idazteko elikadura irakurketa da.

Eta konturatzeko, liburu mordoia idatzi ditu. Oso gazetetatik idatzi nahi zuen, zerbait argitaratu, baina ez zuen inolaz ere uste hainbesteko uzta utziko zuenik. Hala dio orain, atzera begira, eta «urteetan aurrera noan seinale ere bada» gaineratuz, barrez.

Idazketari lotuta, “Berria”-ko kolaboratzaile eta Volgako Bate-lariak blogeko kide izan da, eta

Euskaraz idaztera salto egin zuen «euskara nireagoa bihurtu zenean», hau da, bere egunerokoan, lanean, irakurketetan euskarak protagonismo handiagoa hartu zuenean

Kritika ere ba omen da idazlearen zeregina, irakurlea den neurrian. Idazlea izatea kontu zirkunstantziala dela dio, naturalagoa dela irakurritakoaren gaineko iritzia ematea

orain Oharrak & Hondarrak izenekoa kudeatzen du, «presiorik gabe, neuk markatzen baitut erritmoa». Hala Bedi irratan ere kolaborazioak egiten ditu.

Idazle batek beste idazleen lanen kritika egitea ez ote dagoen

gaizki ikusita galdetuta, beste galdera batez erantzun du: «Zergatik ez? XIX. mendean eta XX.aren hasieran gauzarik ohikoena zen». Hori ere ba omen da idazlearen zeregina, irakurlea den neurrian. Idazlea izatea kontu

zirkunstantziala dela dio, naturalagoa dela irakurritakoaren gaineko iritzia ematea. Berak kritika esker ona adierazteko egiten

duela dio, eta euskal literaturan maila ona sumatzen du, haren ajeak gorabehera. Baina «dezepzioa» ere adierazten du onak edo berak espero bezain onak ez diren lanekin topo egitean. Hala egin zuen 2002an argitaratu zuen “Obabatiko tranbia” bere lehenengo saioan, edo “Animalia disekatuak” eta “(Euskal) literaturaren alde (eta kontra)” lanean. Azken liburu hori urteotan idatzitako saio eta testu kritiko eta polemikoen bilduma da.

Seguruenik batzuen poza eragingo dute haren iruzkin eta gogoetek, baina haserrearek ere bai. Berak bere liburuaren kritikak irakurtzen dituenean bezalaxe. Kritika txarrak ez ditu gogo onez hartzen, haserretu egiten da; «mundu guztia bezala, imajinatzen dut». Kritikaria ere kritika daitekeela dio, baina horretarako oinarri sendoa behar dela; ados ez egote hutsak edo haserrearek ez dutela balio, alegia.

Ipuingilea da batez ere Iban, baina zenbait eleberri ere idatzi ditu, hala nola esandako “Si Sabino viviría” edo “Euskaldun guztion aberria”. Argi dauka eleberriak, luzeragatik besterik ez bada ere, lan gehiago eskatzen duela. Baina ipuin bilduma batek eleberri batek besteko lana izan dezakeela atzean ere uste du. «Ahalegin metatua» berdintsua izan litekeela, alegia. Edo nola ere, ahalegin hori kudeatzeko modua «desberdina» da.

Musikazalea ere bada, eta zaletasun hori ere gaztaroari lotutakoa du. Stones baino Beatles zaleagoa da, eta inoiz DJ lanetan ere jardun du, baina ez profesional gisa, «ez amateur gisa ere, hurrengo mailan baino». Bere ipuinetan ere utzi du zaletasun horren arrastorik, “Biodiskografiak” lanean kasu.

Bizkor joan da denbora. Bihamunean Ibanek fakultatera joan behar du, han ere narratzaile lana egitera. «Historialariaren helburuetako bat, azken finean, narrazio bat osatzea da. Bestetik, idazle bezala, ni narratzailea naiz. Narrazio desberdinak dira, jakina...». Iban Zaldia, narratzailea, kritikaria, «auskalo». •

Xabier Izaga Gonzalez